



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)

## Pneumologia

# Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:**  
**Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



## Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Pneumologiako Zerbitzua eta Prestakuntza Espezializatuko Unitatea. Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea. Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)**



## Pneumologia

Pneumologia arnas aparatuen fisiologiaz eta patologiaz arduratzen den medikuntza-arloa da, eta hau du oinarrizko helburua: arnas gaixotasunen etiologiaren, epidemiologiaren, patogeniaren, fisiopatologiaren eta semiologiaren azterketa eta gaixotasun horien diagnostikoa, tratamendua, prebentzioa eta errehabilitazioa.

Jarraian zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)**



## Nor gara



**Jefe de Servicio: Mª Milagros  
Iriberrri Pascual dk.**



**Arduradun klinika eta  
tutorea: Pedro Mª Ansola  
Zubiaurre dk.**



**Tutora: Sandra Pedrero  
Tejada dk.**



**Tutora: Sonia Castro Quintas  
dk.**



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



1977an, zerbitzua barne-medikuntzaren menpeko atal gisa sortu zen, eta geroago, 1985ean, zerbitzu bilakatu zen. Pneumologiaren Batzorde Nazionalak diseinaturiko espezialitate-programa osoaren prestakuntza eskaintzen du. 1973. urtetik, espezialistak prestatzeko akreditazioa du, eta urtero gehienez bi prestakuntza-plaza hartzeko ahalmena.

37 urte hauetan, Victor Sobradillo Peña, Jose M<sup>a</sup> Antoñana Larrieta eta Jose Antoñana Llorente doktoreek zuzendu dute zerbitzua, baina azken bi urteetan erretiroa hartu dute. Gaur egun, 2015eko uztailaren 14tik, Milagros Iriberrri Pacual doktorea da Zerbitzuko arduraduna eta atalburua .

#### **Zerbitzuaren garapenean izandako gertaerarik nabarmenenak hauek dira:**

- Hasieran, 1977an, barne-medikuntzaren menpeko pneumologia-atala sortu zen. 1985ean, Pneumologia Zerbitzua sortu zen.
- 1985ean, plaza anbulatorioak hierarkizatzen hasi ziren asistentzia-ikuspuntutik, ospitaleko atentzio eta atentzio anbulatorio espezializatua integratuz.
- 80ko urteetatik, ospitaleko kontsulta monografikoak sortuz geroztik, azpiespezialitate pneumologikoen patologia konplexuenekin aritzen da (loa, pneumopatia interstizialak, aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea, asma, patologia baskularra). Azken urte hauetan, bi kontsulta hauek gehitu dira: birrikako minbiziaz bizkor erabakitze kontsulta eta irudi patologikoen kontsulta ez-presentziala lehen mailako atentzioarekin.
- 1991tik, helduen Fibrosi Kistikoaren Unitatea dago, eta eskualdeko erreferentzia-zentroa da.
- Hasieratik, bronkoskopien unitatea dago; 1976an bronkoskopia zurrunarekin hasi zen, eta 1978an, fibrobronkoscopiarekin. 2011ko urtarriletik aurrera, ekobronkoskopia (EBUS) gehitu zen.
- 1982tik, loaren unitatea dago, eta loaren testa egiten da. 1997tik, etxeko arnas poligrafiak egiten dira. 1998tik, polisomnografia egiten da Neurofisiologia Zerbitzuarekin elkarlanean. 2010ean, SEPAR eta CEAMS erakundeek diziplina anitzetako loaren unitatea akreditatu zuten.
- 1977tik, miaketa funtzionalerako laborategia dago, eta honako proba hauek lantzen ditu: espirometria, pletismografia, difusioa, arnas zentroaren azterketa, bronkio-probokazioaren testa eta esfortzu-proba. Geroago, teknika berri batzuk gehitu dira: muskuluen indarraren balorazioa, oxido nitrikoa, eragindako karkaxa, estimulazio magnetikoa. 2010etik, telemedikuntza programa dago, espirometriaren lehen mailako atentzioaren kalitatea



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



hobetze aldera ospitaletik koordinatuta.

- Ariketen entrenamendu-programa Arnas Errehabilitazioarekin kolaboratuta.
- 1987tik, tumore torazikoen diziplina anitzetako batzordea eratu zenetik, Kirurgia Torazikoarekin koordinatuta dago.
- Atala sortu zenetik, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Sailarekin kolaboratu du.

Gaur egun, honako hauek osatzen dute plantilla:

- 1 zerbitzuburu.
- 1 ospitalizazio arloko atalburu.
- 20 mediku adjuntu
- 5 BAME (1 - 2 urteko)

Zerbitzuak **atal edo unitate asistentzial** hauek ditu:

- ❖ Ospitalizazioko solairua 2D aldean: 10 ohe monitorizaziorako eta 36 ohe arrunt (neguan ohe gehiago jartzen da)
- Kanpo-kontsultetarako 5 bulego Ospitalean, kontsulta monografikoetara bideratuak (asma; BGBK; Fibrosi kistikoa; Pneumopatia interstzialak; AMEI; Transplantea; laneko gaixotasunak;; Minbizia eta irudi-azterketa, loaren patologia; etxeko terapiak; biriketako zirkulazioa)
- Kanpo-kontsultetarako 5 bulego eta bost kontsulta lehen mailako atentzioko zentroetan: Portugalete, Areta, Deustua, Ortuella eta Zalla.
- Miaketa funtzionalerako laborategia.
- Loaren laborategia.
- Bronkoscopietako gela.
- Konplexutasun Handiko Asmaren Unitate Espezializatua (SEPAR bikaintasun egiaztapena)
- Konplexutasun handiko BGBK unitate espezializatua, bikaintasuneko SEPAR akreditazioa duena
- Alfa 1eko defizitaren oinarrizko unitate espezializatua – Antitripsina (SEPAR akreditazioa)
- EPIDen oinarrizko unitate espezializatua (SEPAR akreditazioa)
- Biriketako tronboenboliaren asistentzia-prozesua bikaintasuneko SEPAR akreditazioa duena

**Pneumologia** | kontaktua: [secretaria.neumologiacruces@osakidetza.eus](mailto:secretaria.neumologiacruces@osakidetza.eus)

2022



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



- Endoskopia eta Pneumologia interbentzionistako unitate espezializatua (SEPAR akreditazioa)
- Konplexutasun handiko loaren asistentzia-unitatea (SEPAR akreditazioa)
- Tuberkulosi-unitatea (SEPAR akreditazioaren zain)
- Fibrosi Kistikoaren erreferentzia-unitatea (125 paziente helduri jarraipena egiten die)
- TeleEPOC, Teleespirometria eta Telerehabilitazioko programak

Urteroko jarduera eskuragarri dago hemen: [Ospitalea > Urteko Memoria Osoa "Arlo Klinikoak"](#).  
Jarduera asistentzialaren erakusgarri, hona hemen 2020ko datuak (kontuan hartu urte berezia izan dela COVID pandemia dela-eta,):

- Alta-kopurua: 2.744. Kontsultartekoak: 1.080
- Ospitale barneko kontsultak: 11.780. Ospitalez kanpoko kontsultak: 15.125.
- Bronkoskopiak: 711. EBUS: 118
- Loaren testak poligrafiak: 1.182, Polisomnografiak: 247, AutoCPAP-ak: 629
- Proba funtzionalak: Plestimigrafiak: 203, Difusioak: 2.038, Esfortzu-probak: 133, FeNOak: 688
- 255 FeNO

Eta hemen dituzue 2019ko jarduera asistentzialaren datu orokor batzuk:

- Alta-kopurua: 2.429 Kontsultartekoak: 1.055
- Ospitale barneko kontsultak: 11.521. Ospitalez kanpoko kontsultak: 15.126.
- Bronkoskopiak: 867. EBUS: 147
- Loaren testak poligrafiak: 1.747, Polisomnografiak: 372, AutoCPAP-ak: 783
- Proba funtzionalak: Plestimigrafiak: 549, Difusioak: 2.551, Esfortzu-probak: 169, FeNOak: 1.084

Urteko jardurera hemen kontsulta daiteke:

[EZKERRALDE ENKARTERRI GURUTZETAKO ESiko URTEKO MEMORIA](#)



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



## Non gaude

Pneumologia Zerbitzua Gurutzetako  
Unibertsitate Ospitalean dago:  
Gurutzetako plaza z/g. Barakaldo 48903.  
Barakaldo, Bizkaia

[Ikus Ospitalea Google Mapsen](#)

Zerbitzuko Idazkaritza  
**bigarren solairuan** dago.  
Hauek dira idazkari administratiboak:  
**Begoña Díez eta Azucena Miranda.**

**Harremanetarako telefonoa:**

+34-94.600.6510

**Posta elektronikoa:**

[secretaria.neumologiacruces@osakidetza.net](mailto:secretaria.neumologiacruces@osakidetza.net)





**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



## Prestakuntza-eskaintza

Pneumologiako barruko mediku egoiliarren prestakuntza-programa definiturik dago Osasun eta Kontsumo Ministerioaren 2008ko irailaren 1eko SCO/2605/2008 agindua onarturiko pneumologia-espezialitateko prestakuntza-programan. Prestakuntza-programa horrek asistentzia-, prebentzio- eta ikerketa-pneumologiaren alderdi garrantzitsuenak hartzen ditu.

Hau da programaren helburu orokorra: arazo kliniko pneumologikoak atenditzeko beharrezko ezagutzak, trebetasun praktikoak eta jokabideak barneratzea. Pneumologiaren gaitasun-arloetan eta pneumologia-jarduerari loturiko teknikan honako hauek sartzen dira: pneumologia klinikoa, zaintza intentsiboak, larrialdiak eta bitarteko arnas zaintzak; ospitalizazioko eta kanpo-kontsultetarako gela; loaren trastornoen eta teknika diagnostiko eta terapeutikoen unitatea.

Prestakuntza burututakoan, pneumologiako egoiliarrek gai izan behar dute honetarako:

- 1) Espezialitatearen jardura independente eta eguneratuari bide ematen dioten ezagutza, trebetasun eta jokabideak bereganatzeko.
- 2) Oinarrizko prestakuntza klinikoa edukitzeko honako arlo hauetan: osasun-instituzioetako sail, unitate eta zerbitzu ezberdinetan, bihotz-biriketako bizkortzean, bideen erabileran, sail barneko bileren egituran.
- 3) Ikerketan oinarrizko prestakuntza edukitzeko.
- 4) Etengabeko prestakuntza bermatuko dieten oinarriak finkatzeko.
- 5) Bioetikan prestakuntza edukitzeko.
- 6) Kudeaketa klinikoan eta lege-medikuntzako eta komunikazio asistentzialeko arloetan prestakuntza edukitzeko.

Informazio gehiagorako, ikus gure zerbitzu-zerrenda:

[Ospitalea > Zerbitzuen katalogoa > PNEUMOLOGIA.](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza bateratua osatzeko. Ikastaro horietako gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak saio orokorrak egiten ditu hilero asteazken batean edo bitan, 08:30ean, areto nagusian. Saio horiek garrantzi handikoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea zeinahi dela ere.

---

**Pneumologia** | kontaktua: [secretaria.neumologiacruces@osakidetza.eus](mailto:secretaria.neumologiacruces@osakidetza.eus)

2022





**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)**



Izan ere, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasteaz gain, ospitalearen, zerbitzuen eta unitateen funtzionamenduaren eta horien arteko loturen berri jasotzen da, eta baita batzordeek duten jarduera garrantzitsuaren berri ere.

Gure zerbitzuak bilera klinikoak egiten ditu egunero 08:15ean: kasu klinikoak, bilera bibliografikoak, amaitutzat emandako kasuak, egungo gaien berrikusketak, beste zerbitzu batzuekin batera egindako bilerak.



## Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

### 1. urtea:

- Larrialdi orokorrak: bi hilabete
- Kardiologia: hiru hilabete
- Barne-medikuntza: hiru hilabete
- Erradiologia: hilabete bat
- Pneumologia, ospitalizazioa: hiru hilabete

### 2. urtea:

- Pneumologia, ospitalizazioa: bost hilabete
- Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea: hiru hilabete
- Arnasketako errehabilitazioa: hilabete bat
- ZIU: hiru hilabete

### 3. eta 4. urtea:

- Loaren patologia: hiru hilabete
- Miaketa funtzionalerako laborategia: bost hilabete
- Bronkoskopiak: bost hilabete
- Kirurgia torazikoa: bi hilabete
- Kanpo-kontsultak: hiru-lau hilabete
- Kanpo-errotazioa: hiru hilabete
- Ospitalizazioa (ardura-maila: 3): bi hilabete

Egoiliarak kanpo-prestakuntza jaso dezake (bi-hiru hilabetez) nazioko zein atzerriko zentroetan. Irakaskuntza Batzordeak eta gure zerbitzuak aukera ematen dute beste zentro batzuetan trebatzeko. Hona hemen urteotan kanpo-prestakuntza eskaini dugun ospitaleetako batzuk:

- Royal Brompton Hospital, Londres
- Saint Thomas Hospital, Londres



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



- Hospital de la Santa Creu i Sant Pau, Bartzelona
- Hospital Universitario 12 Octubre, Madril
- Hospital Clinic, Bartzelona

Gure ospitaleko pneumologiako egoiliarrek urtean 44-66 guardia artean egiten dituzte (hilean lau-bost). E1-etik, larrialdietan guardiak egiten dituzte; ZIU-ko errotazioetan (loa), hiru guardia espezifiko zerbitzu horietan. 3E eta 4E-an, larrialdietako guardiez gain solairuko guardiak egiten hasten dira astelehenetik ostiralera (hilean bi-hiru).

SEPAR gure erakunde zientifikoak antolatzen ditu espezialitateko prestakuntza-ikastaro espezifikoak, urtean behin edo bitan, patologia ezberdinetako eguneratzeekin. 3E-4E mailan, patologia jakinen inguruko egonaldiak egiten dira erreferentziazko ospitaleetan.



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)**



## Ikerkuntza

Ospitaleak [BioCruces Ikerkuntza Institutuaren](#) sostengua du ikerketarako.

Zerbitzuak ikerketa-arlo hauetan parte hartzen du:

- a. Lehen mailako atentzioa osasunean, prebentzioan eta gaixotasun kronikoetan.
- b. Gailu medikoen garapenerako taldean.

Zerbitzuak zuzentzen dituen edo kolaboratzen ari den beste ikerketa-lerro batzuk:

1. Gaixotasun tronboenboliko benosoa eta biriketako hipertentsioa.
2. Pneumoniak eta arnas aparatuko infekzioak.
3. Loaren arnas patologia. Arnas gutxiegitasuna. Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea.
4. Fibrosi kistikoa.
5. BGBK. Telemedikuntza-sistemak.
6. BGBK duten pazienteen arnas muskuluen azterketa.
7. Asma.
8. Animalia-ereduak (arnas aparatua).

Zerbitzuak farmazia-industriarekin ere lan egiten du saio klinikoak egiten.

Egoiliarra progresiboki ikerketa-lanetan parte hartzen hasten da bigarren egonaldi-urtetik aurrera.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatzagoa eskuragarri dago hemen: [Ospitalea > Ikerkuntza > Memoria Zientifikoa](#). Adibide gisa, urte honetan 20 artikulua argitaratu dira, eta 25 txosten aurkeztu nazioko eta nazioarteko biltzarretan.



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea**  
**Prestakuntza Espezializatuko Programa**  
**Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



## Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa da ikasketaren motorra, eta, hala, ikasketa errazteko bidean, alde sendoak eta ahulak atzemateko balio du, eta hobetzeko planak ezartzeko. **“Prestakuntzaren ebaluazioa”** deitutako ebaluazio-mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat lor dezakegu iturri askotatik eta hainbat ikuspegitatik (gainbegiraleen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio hori eskuetan duela, **Urteko Ebaluazioaren Batzordeak**, aho batez, txosten bat egiten du, eta hor agertuko dira egoiarraren alde sendoak, eta baita non hobetu behar duen ere halakorik atzemanaz gero. Gaitasunetan oinarritutako txosten horrek eta derrigorrean egin beharreko ikastaroen ziurtagiriek osatzen dute **“Egoiarraren Urteko Espedientea”**. Tutorea arduratzen da prestakuntza-prozesu guztia kudeatzeaz, eta, halaber, berak emango dio urteko espedientea.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pneumologia Zerbitzuko BAMEek lortu beharreko gaitasunak bat datoz Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak definitu dituen XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-arloekin:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientearen zainketa eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun-sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (osasunaren sustatzailea eta baliabideen kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentziako, irakaskuntzako eta ikerketako gaitasunak [pneumologiako espezialitatearen programa ofizialean](#) jasotzen dira, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioaren 2008ko irailaren 1eko SCO/2605/2008 aginduak onartua baitu.



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)**



### **Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio-sistema orokorra<sup>1</sup>.**

**Irakaskuntza Batzordeak** eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak zuzentzen dute ebaluazio-sistema. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatuz joan den “Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua” izeneko proiektuaren parte da. Ebaluazio-metodoak hauek dira:

- a. Errotazio bakoitzeko gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- b. Aldian behingo elkarrizketak tutorearekin (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da). Bi alderdi hartzen ditu: lortutako gaitasunen gaineko hausnarketa, batetik, eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin lotutako beste jarduera batzuen kuantifikazioa, bestetik.
- e. Gaitasunetan oinarritutako tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banakako txostena

### **Egoiliarren ebaluazioa jasotako prestakuntzaren gainean.**

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen die Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei.
2. Bi urtean behin, otsail eta martxo artean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hori duela 20 urtetik egiten da.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.

---

<sup>1</sup> Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberry M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J eta González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Hemen eskura daiteke: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)**



## **Pneumologia**